

Fontes

Linguae Vasconum

50 urte. Ekarpen berriak

euskararen ikerketari

Nuevas aportaciones al

estudio de la lengua vasca

Azentuazioaren eremu sin- taktikoak mugatzen

ARANTZAZU ELORDIETA

Argitaratzaileak / Editores

Ekaitz Santazilia

Dorota Krajewska

Eneko Zuloaga

Borja Ariztimuño



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen

Delimiting the syntactic boundaries of stress assignment

ARANTZAZU ELORDIETA

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

arantzazu.elordieta@ehu.eus

JASOA: 2019/07/29 | BEHIN-BEHINEAN ONARTUA: 2019/09/24 | BEHIN BETIKO ONARTUA: 2019/12/13

Lan honen azken idatzaldiak asko zor die bi iruzkingile anonimoen oharrei, iruzkin horiei esker lanak argitasunean eta zehaztasunean irabazi duelako. Gorka Elordieta eta Jose Ignacio Hualde lankideei ere eskerrak eman nahi dizkiet lan hau haiekin partekatutako ideien eta eztabaiden ondorioa baita. Jakina, lanean leudekeen akatsak niri leporatu beharko litzaizkidake.

Ikerketa hau Eusko Jaurlaritzako diru-laguntza jasotzen duen IT1396-19 HiTT ikerketa-taldearen eta MICINN PGC2018-100686-B-I00 ikerketa-proiektuaren ekintzen barruan kokatzen da.

LABURPENA

Lan honetan berez azentugabeak diren hitzen azentu eratorriaren ezarpena aztertzen da, hauek testuinguru jokatu gabeetan agertzen direnean. Aurreko lan batzuetan hasitako bideari segida emanez (A. Elordieta, 2002; Elordieta, Elordieta & Hualde, 2018), hitz azentugabeek aditzaren aurretik joateagatik jasoko luketen azentuaren ezarpena blokeatzen duten beste testuinguru sintaktiko batzuk aztertzen dira, kasu honetan perpaus jokatu gabeak, Lekeitioko hizkeran oinarrituta. Beste behin ere azentu-ezarketan asimetriak daudela ohartuko gara, eta ondorioztatuko dugu *-t(z)en* morfemaren azpian bi egitura egon daitezkeela. Asimetria horien berri eman dezakeen azalpen sintaktikoa eskainiko dut, azentu ezarpenaren eremu prosodikoa *a*, *Jok*, *P* eta *D* faseen eskuineko muturrarekin lotuta dagoela proposatuz.

ABSTRACT

In this paper I examine the position of the sentential main stress in subordinate non-finite clauses in Lekeitio Basque. Previous works looked at finite contexts where (derived) stress assignment to lexically unaccented preverbal constituents is blocked (A. Elordieta, 2002; Elordieta, Elordieta & Hualde, 2018). The discussion here extends the analysis to non-finite contexts, and uncovers a further asymmetry in stress assignment to unaccented words preceding a verbal form in *-t(z)en*. I provide a syntactic analysis for these asymmetries, by postulating that the prosodic domain for stress assignment is associated with the right edge of the *v*, *Fin*, *P* and *D* phases.

Gako-hitzak: azentu eratorria; postposizioa; fasea; determinatzailea.

Keywords: derived stress; postposition; phase; determiner.

1. Sarrera

Bizkaiko iparraldeko zenbait hizkeratan hitz azentudunen eta hitz azentugabeen artean bereizten dute hiztunek (Hualde, Elordieta & Elordieta, 1993, 1994; G. Elordieta, 1998; Hualde, 1997, besteak beste); hau da, hitz batzuek (azentudunek) azentua beti silaba berean daramate (nahiz eta zein silabatan doan aldagarria den, hizkeraren arabera), eta hitz azentugabeek ez dute berez azenturik. Hala ere, azken hauek azentu *eratorria* jasotzen dute hitzaren azken silaban aditz jokatuaren aurrean agertuz gero (terminoa Jun eta Elordieta [1997] lanetik hartu dut; baina ik. lehenago ere Hualde, Elordieta eta Elordieta [1993]). Behean hitz azentudunak (*lehengúsu*, (1a)-n) eta azentugabeak (*andra* eta *lagun* (1b-c)-n) dituzten adibideak ematen ditut, Lekeitioko hizkerako datuak erabiliz:

- (1) a. Jósun **lehengusúak** ekarri dau
- b. Nire lagunak **andriá** ekarri dau
- c. Nire andrien **lagunák** ekarri dau

Lekeitioko azentueran ohi denez, hitz azentudunak azentua azken-aurreko silaban darama (ik. (1a))¹; aldiz, (1b-c)-n ikus daitekeenez, *laguna* zein *andria* azentugabeak dira berez, baina aditzaren aurrean doazenean azentua jasotzen dute azken silaban (erkatu, esaterako, *lagunak* hitzaren azentuera desberdina (1b)-n eta (1c)-n).

Eredu hau zenbait mendeko perpausetan ere errepikatzen da (2a), baina ez guztietan; *-en* menderagailudun zehar-galderetan, adibidez, ezin du azentua jaso (A. Elordieta, 2002; Elordieta, Elordieta & Hualde, 2018):

- (2) a. [nire andrien **lagunák** ekarrí dabelá] esan dau
- b. [nire andrien ***lagunák** ekarri daben] pregunta dau

Kasu hauetan menderagailua atxikita daukan aditz jokatuak darama azentu nagusia:

- (2) c. [nire andrien lagunak ekarri **dabén**] pregunta dau

Zehar-galderetako testuinguruez gain, antzeko kontrasteak aurkitu dira beste mendeko perpausetan, hala nola adjinktu-perpausetan (A. Elordieta, 2002; Arregi, 2006; Elordieta, Elordieta & Hualde, 2018).

¹ Beharbada komeni da gogoratzea azentu-eredu honen eremua hitz morfologiko osoa dela, alegia, erro azentudunari erantsitako kasu- eta postposizio-markak ere azentuazioaren kontaktetan sartzen dira.

Lan honetan erakutsiko dut azentu-ezarketan dauden asimetriak beste testuinguru batzuetara ere hedatzen direla, hain zuzen perpaus jokatu gabe nominalizatu eta. Testuinguru hauetan ere mendeko aditzaren aurreko hitz azentugabeak ezin du azentua jaso:

- (3) *[nire **lagunák** ekartía] nahi dot
- (4) *[zure andrien **laguná** etórten] ikusi dot
- (5) *[zure andrien **laguná** ekárteko]² agindu dotzo

Perpaus onak egiteko, azentu nagusia aditzak jaso behar du:

- (6) [nire lagunak **ekartía**] nahi dot
- (7) [zure andrien laguna **etórten**] ikusi dot
- (8) [zure andrien laguna **ekárteko**] agindu dotzo

Bestalde, interesgarria da ondoko adibideen arteko kontrastea ((4) eta (7) adibideak errepikaturik ematen dira):

- (4) *[zure andrien **laguná** etorten] ikusi dot
- (7) [zure andrien laguna **etórten**] ikusi dot
- (9) Zure andrien **laguná** etorten da sarri auzora

-t(z)en atzizkia euskaraz aspektu burutugabea adierazteko erabiltzen da aditz laguntzaile batez lagundurik, (9) adibidean bezala, baina adizki jokaturik gabe ere ager daiteke, zenbait aditzen osagarri-perpausetan; esate baterako, oharmen-aditzen mendeko perpausetan (7). Nabarmentzekoa deritzot (7)-ren eta (9)-ren arteko kontrasteari, datu interesgarria erakusten baitu: hots, aspektu burutugabea adierazten duen *-t(z)en* morfemak eta oharmen aditzetako *-t(z)en* morfemak desberdin jokatzen dutela hitz azentugabearen azentu ezarketan, lehenean soilik baita zilegi aditzaren aurreko hitz azentugabeak azentua jasotzea. Asimetria prosodiko hori egiturazko desberdintasun baten aztarna izan daitekeela iradoki nahi nuke, aurrerago (3.1. atala) zehaztuko ditudan terminoetan. Eremuetako muturretan (*edge*) oinarritzen diren analisiak abiapuntutzat harturik (Truckenbrodt, 1995, 1999, 2005, 2007; Selkirk, 1995, 2000), asimetria prosodiko horiek azaltzen saiatuko naiz, osagai prosodikoetako mutur bat eta osagai sintaktikoetako muturra batera lerrokatzen diren ala ez aintzat harturik.

Aurrera jarraitu baino lehenago, zenbait ohar argigarri egin behar ditut: batetik, adibideetan ez dut adierazi aditz nagusiak eta laguntzaileak osatzen duten unitate edo hitz prosodikoak ere azentua jaso dezakeela, gutxiago hautematen den arren. (1-8)-ko perpausetan, adibidez, ez da azenturik nabaritzen aditz jokatuan, bi hitzak direlako azentugabeak, baina (9)-ko adibidean bezala (behean errepikaturik) bietako bat azentuduna baldin bada (*etórten* aditz-forma), orduan azentu bat nabarituko da aditz jokatuak

² Lekeitioko azentuera orokorrean hitz azentudunak azentua azken-aurreko silaban daraman arren, helburuzko menderagailuaren kasuan azentua atxikitzen zaion oinarriaren azken silaban ezarrarazten du (Hualde, Elordieta & Elordieta, 1994).

laguntzailearekin osatzen duen hitz prosodikoan, aditzaren aurreko osagaiarena baino baxuagoa antzemango bada ere (Elordieta, Elordieta & Hualde, 2018).

(9) Zure andrien **laguná** etortén-da sarri auzora

Bestetik, ohartarazi behar dut eztabaidatik kanpo utzi ditudala zenbait kontu, ez interesik ez dutelako, baizik eta lan honen espazio-mugengatik xehetasunetan sartzeko aukerarik ez dudalako. Alde batetik, azpimarratu nahi dut lan osoan zehar ordena neutroan emanda datozen adibideak izango ditugula aztergai (nahiz eta ordena honetan, ezaguna denez, aditzaren aurreko elementuak foku irakurketa jaso dezakeen); beraz, albo batera utziko ditut *fokua-aditz jokatua-gainerako osagaiak* hurrenkerak zein perpau-saren polaritatea nabarmentzen duten egiturak (*verum focus* testuinguruak), zeinetan azentua partizipioan ezartzen den. Kasu honetan, aditzaren aurreko osagai azentugabeak ez du azenturik jasotzen:

(10) Nire andrien lagunak **ekarrí** dau

Azkenik, era berean, eztabaidatik kanpo utziko dut adizki trinko azentugabeen azentu-eredua, zeinaren arabera aditzaren aurreko osagai azentugabeak ez, baizik eta aditzak berak jasotzen duen azentua: [*laguna datór*]. Kasu hauetan aditzaren aurreko osagai azentugabeak eta adizki trinkoak unitate prosodiko bakarra balira bezala jokatzeko dute. Hau seguru asko lotuta dago aditz jokatuak azentua jasotzeko duen ezintasunarekin (Ortiz de Urbina, 1989, 1994; A. Elordieta, 2001; Elordieta & Haddican, 2018), ondorioz, egitura perifrastikoetan aditz nagusiak ematen dion euskarri fonologikoa aditzaren aurreko osagaiak ematen dio adizki trinkoari (Hualde, Elordieta & Elordieta, 1993, 1994).

2. Ikerketarako galderak

Aurreko atalean aurkeztu ditudan asimetriak hizkera batzuei lotuta egoteaz haratago, uste dut arrazoiak ditugula gramatikako gertakari sakonago baten seinale direla pentsatzeko. Izan ere, alde batetik aintzat hartu behar da euskaraz oro har aditzaren aurrean doan osagaiak foku-irakurketa jaso dezakeela, nahiz eta irakurketa hori ez den nahitaezkoa, SOA hurrenkeran perpau osoa izan baitaiteke informazio-fokua (de Rijk, 1969; Ortiz de Urbina, 1989; A. Elordieta, 2001, beste askoren artean). Zentzu honetan, hitz azentugabeek jasotzen duten azentu eratorria foku-azentuekin lot daiteke. Halarik ere, arestian ikusi dugu kokapena mantendu arren, zenbait testuingurutan azentua ezin daitekeela ezarri; honek sortzen duen galdera da, beraz, zergatik ez datozen bat egitura sintaktikoa eta prosodikoa.

Aurreko lan batzuetan adierazi denez (G. Elordieta, 1998; A. Elordieta, 2002; A. Elordieta, 2004; Elordieta, Elordieta eta Hualde, 2018), gure hipotesia da hitz azentugabeen azentuera eratorriak lotura duela hitzok agertzen diren eremu sintaktikoarekin, eta azken honek baldintzatzen duela azentua ezar daitekeen ala ez. Jakina, hipotesia frogatzeko, asimetria prosodikoak erakusten dituzten hizkerei begiratu behar diegu, eta horregatik

hartu dugu Lekeitioko hizkera aztergai, ikerketarako adibide gisa. Erantzun beharreko galdera nagusietako bat, hortaz, prosodiaren eta sintaxiaren arteko lotura *noiz* eta *nola* gertatzen den erantzutean datza.

Horretarako, Uriagerekaren (1999) *Ahoskatze Anizkuna (Multiple Spell-out)* analisisian oinarrituz, azentuaren arau fonologikoa ziklikoki ezartzen dela onartuko dut, sintaxian zikloak bereizten dituen *fasetzat* hartzen diren buruen eremuen bar-ruan, *spell-out* edo *ahoskatze-gunera* bidaltzen direnean (ik. antzeko ideietarako Le-gate, 2003; Adger, 2007; Kratzer & Selkirk, 2007; Kahnemuyipour, 2009; Cheng & Downing, 2009, 2016; Downing, 2010, 2011; Ahn, 2015). Aurreko lan batean (Elordieta, Elordieta & Hualde, 2018) ideia hori proposatu genuen, hainbat mendeko per-paus jokatu aztertu ondoren. Zehazki, lan horretan iradokitzen da azentu-ezarketa modu ziklikoan gauzatzen dela fase sintaktikoaren eremuan, *fasetzat a* (aditz txikia), Jok(atutasuna) eta P(ostposizioa) hartuz (ik., beste hizkuntzetarako, Chomsky, 2001, 2004, 2008; Abels, 2003, 2012; Citko, 2014). Lan horretan *-ela* eta *-en* menderagailuen artean asimetria nabaria dagoela erakusten da azentu-ezarketari dagokionez, eta proposatzen dut *-en* (baina ez *-ela*) postposiziodun menderagailua dela, eta ondo-rioz, mendeko aditzaren aurreko hitz azentugabea beste fase sintaktiko batean ego-nik, ezin duela azenturik jaso³.

Lan honetan azentua ezartzeko araua fase sintaktikoekin lotzeko ideia nagusiarri utsiko diot, testuinguru jokatugabeetan hitz azentugabeek erakusten duten jokabide-ari erreparatuz. Horretarako, itzul gaitzezen (6), (7), (8) adibideetara, (11), (12), (13)-n errepikatuta:

- (11) [nire lagunak **ekartía**] nahi dot
- (12) [zure andrien laguna **etórten**] ikusi dot
- (13) [zure andrien laguna **ekárteko**] agindu dotzo

Hitz azentudunek ez dute inoiz beren azentua galtzen, berdin delarik zein den fo-kalizatutako osagaia edo zein egitura sintaktikotan ageri diren (jokatua edo ez-jokatua, edo zein menderagailurekin). Aldiz, hitz azentugabeek ezin dute azenturik jaso goiko testuinguru jokatugabeetan.

Datu horiek azaltzeko, aipatutako lanean *-en* eta *-ela* mendeko perpausen arteko kontrastea azaltzeko erabili genuen hipotesitik abiatuko naiz, ondoko atalean xehekiago aurkeztuko dudanaren ildotik, analisia zertxobait egokituz.

³ Espazio arrazoiengatik ezin naiz xehetasunetan sartu, baina interesa duen irakurleak Elordieta, Elordieta eta Hualderen (2018) lanera jo dezake zehaztasun gehiagoren bila.

3. Datuen analisia eta proposamena

3.1. Analisia

Goiago aurkeztu ditudan datuek aditzera ematen dutenez, hitz azentugabeak ezin du azenturik jaso *-ela* ez den mendeko testuinguru batean agertzen bada (ik. (1), (2a), eta (9) *vs* (2b), (6), (7), (8))⁴. Testuinguru jokatuetao asimetriari berri ematen duten zenbait lan daude (A. Elordieta, 2002; Arregi, 2006; Elordieta, Elordieta & Hualde, 2018), eta lan honekin azentuaren analisia osatu beharra dagoela erakutsiko dut, testuinguru jokatuetao datuei erreparatu.

Erabiliko dudako marko teorikoa azken urteetan sintaxiaren eta F(orma)F(onetikoa)-ren arteko interfazeaz diharduten hainbat lanetan irekitako ildoan kokatzen da. Zehazki, Bresnanen (1971) ideia zahar batean oinarriturik, azentu nagusiaren ezarpena zikloen barruan erabakitzen dela onartuko dut, haren eremua ahoskatze-gunera bidaltzen den materiala izanik (Legate, 2003; Adger, 2007; Kratzer & Selkirk, 2007; Kahnemuyipour, 2009). Lan horietan onartu ohi denez, arau fonologiko batzuk sintaxian *fase* deritzen eremuekin identifikatzen dira (Chomsky, 2001, 2004, 2008), hau da, fase sintaktiko baten barruan ezartzen dira. Era berean, onartuko dut ahoskatzaera bidaltzen den egitura fase-buruaren osagarria dela (soilik); modu horretan, burua bera eta haren espezifikatzailea hurrengo fasera arte *erabilgarri* geratuko dira eratorpen sintaktikoak aurrera egin ahala (Legate, 2003; Adger, 2007; Kratzer & Selkirk, 2007; Pak, 2008; Kahnemuyipour, 2009; Cheng & Downing, 2009; Ahn, 2015).

Bestetik, literatura espezializatuan argudiatu ohi denez, onartuko dut faseak *a* eta Konp-*ez* gain (Chomsky, 2001, 2004, 2008), Det (Citko, 2014) eta P direla (Abels, 2003, 2012). Nolanahi ere, Ortiz de Urbinak (1999) euskarara egokitzen duen Rizziren (1997) KonpS zatituaren analisia gureganatuz, Chomskyk fasetzat duen C Jokatu^o (Jok) buruarekin identifikatuko dugu.

Azkenik, hitz azentugabeen azentu nagusia nola ezartzen den iragartzeko, *azentuzarketaren erregelaren* (NSR [*Nuclear Stress Rule*]) bertsio hau erabiliko dut, Adgerren (2007) formulazioa egokituz⁵:

- (14) a. Errepikatu hitz prosodikoaren azentu nagusia hurrengo zikloetan (faseetan)
b. Azentua duen osagairik ez badago, eskuinaldean dagoen hitzarena islatu

Chengek eta Downingek (2009, 2016) hainbat bantzu hizkuntzatan gertatzen (ez) diren prozesu fonologiko batzuk (bokalak luzatzea edo tonu-aldaketak) azaldu nahian, antzeko proposamena egiten dute, *Optimality Theory* (Optimotasunaren Teoria) deritzon

⁴ Datuen osotasunari begira, aipatu behar da *-ela* menderagailuarekin bezala, *-tul-il-n* amaieradun perpaus jokatuetao *gardenak* direla azentu-*ezarketari* dagokionez, hots, ez dutela oztopatzen hitz azentugabeak azentua jasotzea. Hemen egiten dudako proposamena bide zuzenetik badoa, espero dugun emaitza da hori, *-tul-il-n* egiturek ez badute JokS baino egitura gehiago beren gainetik.

⁵ Adger (2007):

- (i) a. Project the highest stress to the next line of the grid.
b. In the absence of a highest stress, project the rightmost (*cfr.* Gussenhoven, 1983).

eredu teorikoa erabiliz, zeinaren arabera hitz prosodikoaren eskuineko muturra fase baten eskuineko muturrarekin lerrokatzen duen araua edo murriztapena gailentzen den beste murriztapenen gainetik (ik., halaber, Downing, 2010, 2011). (15)-en egokitudut haien proposamena:

- (15) a. Lerrokatu Esk [fase goren, esaldi fonologikoa]: lerrokatu fase gorenaren eskuineko muturra esaldi fonologiko baten eskuineko muturrarekin.
b. Lerrokatu Esk [esaldi fonologikoa, fase goren]: lerrokatu esaldi fonologiko baten eskuineko muturra fase gorenaren eskuineko muturrarekin.

Irakurle bizkorra ohartuko denez, Chengen eta Downingen proposamenean «goren» dagoen faseari erreparatzen diote eta ez fase bakoitzaren eskuineko muturrari; izan ere, haien ustez bantu hizkuntzetako datuek ez dute erakusten arau fonologikoak ziklikoki ezartzen direnik, eratorpen bidezko analisi batean espero zitekeen moduan, baizik eta perpausaren eratorpen osoa amaitu arte ez direla ezartzen.

Nolanahi ere den, erraz ikus daiteke Adgerrek proposatzen duen (14b) erregelak eskuineko muturrarekin lotzen duela azentu-ezarketa, eta zentzu horretan esan daiteke prosodiaren eta sintaxiaren arteko elkarreragina azaltzeko osagai prosodiko eta sintaktikoen muturrarekin oinarritzen diren analisisien antzekoa dela (ik., halaber, Kandybowicz [2009], nupe hizkuntzan osagai prosodikoen ezkerreko muturraren murriztapenak sintaxian duen eraginaren azalpen baterako).

Abiapuntu honetatik, eta euskarazko hitz azentugabeen azentuerari dagokionez, ondoren zehaztasun gehiagoz aztertuko dugu nola azal daitezkeen datuak (14)-ko araua kontuan hartuz.

Hasteko, adierazpen-perpaus baten azentu-ezarketa ikusiko dugu:

- (16) Nire lagunak andriá ekarri dau (= (1b))

Eratorpen sintaktikoan A ara mugituko da, eta AS barneko osagarriak ez badira mugitzen (esaterako, kasua komunztadura bidez zilegiztatzen delako), 1. ahoskatze-eremua aS fasearena da, hots, [andria], eta azentugabea izanik, (14b)-ren arabera, azentu nagusia jasoko du. Ondoren, Asp eta gero Denb txertatzen dira, subjektua haren espezifikatzailela doa, eta hurrengo Jok^o txertatzen denean, 2. ahoskatze-eremua DenbS da. Aditza Jok^o-era mugitzen bada, [nire lagunak andria] da eremua, eta (14)-ren arabera, [andria]-k jasoko du azentua.

Beste aukera da AS barneko osagarria kasua zilegiztatzeko aren espezifikatzaile mugitzen dela pentsatzea; kasu horretan, 1. ahoskatze-eremuan ez legoke osagai fonologikorik ahoskatzeko, eta beraz, hurrengo fasera arte ez da ezer ahoskatuko. 2. ahoskatze-eremua DenbS da; aditza Jok^o-era mugitzen bada, [nire lagunak andria] da ahoskatze-eremua, eta (14)-ren arabera, [nire lagunak] eta [andria] biak direnez azentugabeak, andriak jasoko du azentua, eskuinaldean dagoelako.

Ondoren, azter dezagun mendeko *-t(z)en* egituren azentuera nola ezarriko litzaitekeen. Gogoratu lehen nabarmendu dugun azentuera-kontrastea egitura hauen eta egitura perifrastikoen artean:

- (17) a. [zure andrien laguna **etórten**] ikusi dot (= (7))
 b. Zure andrien **laguná** etorten da sarri auzora (= (9))

(17b) adibidearen eratorpena adierazpen perpaus arrunt batena litzateke *-t(z)en* Asp dela onartzen badugu.

(17a)-ko *-t(z)en* egituretan, aldiz, proposatuko dut $[[\text{-t(z)e}]n]$ egitura dugula, hau da, P(ostposizio) batek menderatzen duen nominalizazioa dela, San Martinek eta Uriagerekak (2002) eta San Martinek (2008) onartu bezala⁶. Bestela, nekez azal liteke zergatik ez duten jokutzen modu berean aditzaren aurreko hitzaren azentuazioari dagokionez.

Proposamen hau onartzen baldin badugu, Kayneri (2000 [1999], 2005) jarraituz, preposiziodun konplementatzaileak daudela onartuko dugu (ik. Elordieta, Elordieta & Hualde, 2018), eta horrenbestez, *-enean*, *-enétik*, *-t(z)eko*, *-t(z)en* motako konplementatzaileak *postposiziodun konplementatzaileak* direla argudiatuko dut, ondoko egitura hau proposatuz:

- (18) $[_{\text{PosS}} [_{\text{JokS}} [_{\text{DenbS}}]\text{-tze}]\text{-n}]$

Kaynek (2005) argudiatzen du P-k DenbS erakartzen duela bere espezifikatzaileira. Ideia hau gureganatuz, eman dezagun Jok^o-en *-t(z)e* dagoela, eta *-n* gorago dagoen P dela, (18) egiturak aditzera ematen duenez. Gogora dezagun, era berean, P fasea dela onartu dugula (Abels, 2012). Jok^o P-ra mugitu ondoren, eta DenbS P-ren espezifikatzaileira mugitu ondoren, Jok^o fasearen ahoskatze-eremuan ez dago ezer fonologikoki gauzatzeko (mugitutako kopiak baino ez daudelako), eta (14b) aplikatuz, aditzak (eskuinaldean dagoen hitza delako) jasoko du azentua, (17a)-n dakusagun azentuera eratorriaz⁷.

Proposamen honek erraz azal dezake (17a) eta (17b)-ren arteko kontrastea; izan ere *etorten* (17a)-n eta (17b)-n ez daude fase berean, eta hartara, fonologiara bidaltzen den materiala desberdina da; ondorioz, azentu-ezarpenaren erregela modu desberdinean erabakiko da kasu batean eta bestean.

(17a)-rako proposatu dugun azalpen bera leukakete *-t(z)eko* egiturek:

- (19) [zure andrien laguna **ekárteko**] agindu dotzo
 (20) $[_{\text{PosS}} [_{\text{JokS}} [_{\text{DenbS}}]\text{-t(z)e}]\text{-ko}]$
 (21) $[_{\text{PosS}} [_{\text{DenbS}} \text{zure andrien laguna ekar}]\ [_{\text{JokS}} [_{\text{t}_{\text{DenbS}}}] \text{ekar-te}]\text{ ekarteko}]$

⁶ Ik., halere, Arteatx (2011, 2012), oharmen adizetako osagarri perpausak AspS direlako proposamenerako. Guk lan honetan mendeko perpaus jokatugabeetako *-t(z)e* morfema konplementatzailetzat jotzen dugu, *-en*, *-ela* eta beste konplementatzaileek bezala, mendekotasuna adierazten baitu perpaus jokatugabeetan. Horrek, gainera, bide ematen digu *-t(z)ea* nominalizazioetan aurkitzen dugun azentu eredu berdina azaltzeko, bai eta *-t(z)ean*, *-t(z)era*, *-t(z)eko* bidez eratutako egiturek erakusten dutena argitzeko.

⁷ Iruzingile batek kezka adierazten du eratorpen honekin, PS-ren espezifikatzaileerako DenbS-ren mugimendua mugimendu «laburregia» bailitzateke, hots, *Antilocality* baldintza bortxatuko lukeelakoan, baina (18)-ko eratorpenean DenbS ez da P-ren osagarria, baizik eta egitura beherago dagoen JokS-ren osagarria, beraz, mugimendu horrek ez luke baldintza hori urratuko. Iruzingile berak ohartarazten du DenbS-ren mugimenduak aditzaren lehen kopia dararamala barnean, eta zalantza agertzen du haren zilegiztapenaren gainean. Galdera irekita utziko dut lan honetan.

3.2. Analisisa *-t(z)ea* nominalizazioetara hedatuz

-t(z)ea nominalizazioaz den bezainbatean, gorago ikusi dugu *-t(z)en* egituren antzera jokatzeko duela azentuerari dagokionez; alegia, haren aditzaren aurreko hitz azentugabeak ezin du azenturik jaso⁸:

- (22) a. [Nire lagúnak ***diru askó** irabaztiak] amorratzén-nau
b. [Nire lagunen andriak diru asko **irabaztiak**] amorratzén-nau.

Hipotesirik sinpleenetik abiatu behar dugula sinetsita, goian aurkeztu dugun azalpen saiakerak datu hauek ere barnean hartzen dituela proposatuko dut, baina analisisa zertxobait egokituko dut. Euskaraz *-t(z)ea* nominalizazioek *-a* determinatzailea atxikita daramatela aintzat hartuta, eta aurretik ere hainbatek nominalizazioak DetS direla argudiatu dutenez (Ortiz de Urbina, 1989; Artiagoitia, 1995, 2003; Zabala & Odriozola, 1996; San Martín & Uriagereka, 2002; San Martín, 2008, 2012; Duguine, 2012), (22)-ko datuek azalbide erraza dute Det fasea dela onartzen badugu (ik. Svenonius, 2004; Chomsky, 2008; Citko, 2014). Horretarako, *-t(z)ea* nominalizazioen egitura ondokoa dela proposatuko dut, *-t(z)e* nominalizatzailea Jok^o buruan irudikatuz:

- (23) [_{DS} [_{JokS} ... tze]-a] (cfr. (18) [_{PosS} [_{JokS} [_{DenbS}]-tze]-n])

Alegia, proposamen honen arabera, *-t(z)en* egitura eta *-t(z)ea* nominalizazioen arteko desberdintasuna nominalizazioa menderatzen duen gaineko kategorian datza: PS den ala DS. Horrenbestez, berauen banaketa aditz nagusiaren hautapen sintaktikoaren araberrakoa izango da (hots, oharmen aditza den, nahi-desio aditza den, etab.). Paralelismo honek, bestetik, azalbidea ematen digu nominalizatutako aditzaren aurreko osagai azentugabeak azentua zergatik ezin duen jaso ulertzeko. Izan ere, D fasea dela onartzuz gero, (18) eta (20)-rako proposatu dugunaren haritik, pentsa dezakegu Determinatzaileak DenbS erakartzen duela bere espezifikatzaile. Modu horretan, Jok^o fasearen ahoskatze-eremuan ez dago ezer fonologikoki gauzatzeko, eta (14b) aplikatuz, aditzak (eskuinaldean dagoen hitza delako) jasoko du azentu nagusia, (22) adibideetako azentuera eratorriaz.

- (24) [_{DetS} [_{DenbS} nire lagunak **ekar**] [_{JokS} [_t [_{DenbS}] **ekartze**] ekartzea]

4. Ondorioak

Lan honetan hitz azentugabeen azentu-ekarpenaren araua nola konputatzen den aztertu da, *-t(z)e* nominalizatzailearekin osatutako perpausen jokabidea behatuz. Perpaus nagusietan ez bezala, perpaus jokatugabe hauetan aditzaren aurreko hitz azentugabeak ezin du (bestela jasoko lukeen) azentu eratorria jaso. Asimetriaren berri emateko, aurreko lan batean hasitako bidetik jarraituz (Elordieta, Elordieta & Hualde, 2018), FF-ren eta sintaxiaren eremuan arteko harremana aztertzen duten hainbat lanen ildo teorikotik abiatu naiz. Zehazki, lan horietan argudiatzen da arau fonologiko zenbaiten ezarpen-

⁸ (22)-ko adibideetan azentuazio desberdina duten bi subjektu eman ditut, erakusteko hitz azentudunak (plurala den *nire lagúnak* (22a)-n) beti mantentzen duela bere azentua, lexikoa delako, eta arazoa hitz azentugabeak duela.

eremuak bat egiten duela fase sintaktikoarekin (Legate, 2003; Adger, 2007; Kratzer & Selkirk, 2007; Kahnemuyipour, 2009; Cheng & Downing, 2009, 2016; Downing, 2010, 2011; Ahn, 2015). Eta eredu honen barruan badira are proposamen zehatzagoak eginaz eremu prosodikoen eta eremu sintaktikoen muturretan (*edge*) oinarritzen diren analisiak (Truckenbrodt, 1995, 1999, 2005, 2007; Selkirk, 1995, 2000, 2011; Cheng & Downing, 2009, 2016). Hortik abiaturik, lanean aztertutako asimetriak azaltzen saiatu naiz hitz azentugabeen azentu-ezarpenaren eremu prosodikoa *a*, *Jok*, *P* eta *D* faseen eskuineko muturrarekin lotuta dagoela proposatuz.

Lehenik, *-t(z)en* eta *-t(z)eko* mendeko perpausak postposiziodunak direla iradoki dut, eta hortaz, postposiziodun konplementatzaileak direla. Kaynek (2000 [1999]) ar-razoia badu, *P* honek DenbS-ren mugimendua erakartzen du bere espezifikatzaileira. Horrela, azentuaren ezarketak fase-buruaren osagarrian dauden elementuei bakarrik eragiten dienez (espezifikatzailean dagoena alboratuz), fasearen barruan eskuineko muturrean dagoen aditz jokatuak jasoko du azentu nagusia, hemen proposatzen dudana azentu-ezarketaren analisiak iragartzen duen bezala.

Bigarrenik, *-t(z)ea* nominalizazioak determinatzaileak KonpS direla onartu dut, beste askok egin dutenez (besteak beste, Artiagoitia, 1995; Zabala & Odriozola, 1996; San Martin & Uriagereka, 2002; Duguine, 2012), eta *D* fasea dela aintzat harturik (Svenonius, 2004; Citko, 2014), postposiziodun konplementatzaileentzat proposatu dudana azalbidearen bidez uler dezakegu zergatik ezin duen nominalizatutako aditzaren aurreko osagai azentugabeak azentua jaso. Izan ere, Determinatzaileak DenbS bere espezifikatzaileira erakartzen duela iradoki dut, eta modu horretan, fasearen ahoskatze-eremuan aditzak (eskuinaldean dagoen hitza delako) jasoko du azentu nagusia.

Azkenik, aztertutako datuek aditzera eman dute mendeko *-t(z)en* egiturek eta adizki perifrastikoetako *-t(z)en* egiturek azterbide desberdina eskatzen dutela, kasu batean aditzaren aurreko hitzak ezin duelako azenturik jaso, baina beste kasuan bai. Kontrastea ulertu nahian, lan honetan iradoki dut mendeko *-t(z)en* postposizioduna dela, eta aspektu burutugabea adierazten duen *-t(z)en*, aldiz, aspektuzko morfema dela.

Agerikoa da hemen egindako proposamena datu gehiagorekin osatu behar dela, bide zuzenetik doan frogatzeko. Aztertu beharreko egituren artean, adizki trinkoekin zer azentuera gertatzen den eta hurrenkera markatuetan (hots, fokalizazioetan) azentu ezarpena nola gauzatzen den ikusi beharko litzateke, ordena hauetan aditz jokatuak ez baita perpausaren bukaeran agertzen. Hemendik aurrerako ikerketan galdera hauei ekitea espero dut.

Erreferentziak

- Abels, K. (2003). *Successive cyclicity, anti-locality, and adposition stranding* (doktoresia). University of Connecticut, Connecticut.
- Abels, K. (2012). *Phases: an essay on cyclicity in syntax*. Berlin-Boston: Walter de Gruyter.
- Adger, D. (2007). Stress and phasal syntax. *Linguistic Analysis*, 33, 238-266.

- Ahn, B. (2015). *There's nothing exceptional about the Phrasal Stress Rule*. Eskuizkribu argitaragabea. Princetown University, Princetown. ling.auf.net/lingbuzz/002458 helbidetik eskuratua.
- Arregi, K. (2006). Stress and islands in Northern Bizkaian Basque. *ASJU*, 40, 81-106.
- Arteatx, I. (2011). *Euskarazko aditz jokatu-gabeak: -t(z)en morfemadun perpaus osagarrien azterketa sintaktikoa* (doktore-tesia). UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz.
- Arteatx, I. (2012). Perception verb complements in Basque. In U. Etxeberria, R. Etxepare & M. Uribe-Etxebarria (arg.), *Noun phrases and nominalization in Basque: syntax and semantics. Linguistik Aktuell/Linguistics Today 187* (397-435. or.). Amsterdam-Philadelphia: John Benjamins.
- Artiagoitia, X. (1995). *Verbal projections in Basque and minimal structure*. *ASJUren gehigarriak* 36. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Artiagoitia, X. (2003). Non-finite structures. In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque* (656-693. or.). Berlin-New York: Mouton de Gruyter.
- Bresnan, J. (1971). Sentence stress and syntactic transformations. *Language*, 47, 257-281.
- Cheng, L. L. & Downing, L. (2009). Where's the topic in Zulu? In H. de Hoop & G. van Bergen (arg.), *The Linguistic Review. Special issue on topics cross-linguistically*, 26, 207-238.
- Cheng, L. L. & Downing, L. (2016). Phasal syntax = cyclic phonology? *Syntax*, 19(2), 156-191.
- Chomsky, N. (2001). Derivation by phase. In M. Kenstowicz (arg.), *Ken Hale: A life in language* (1-52. or.). Cambridge, MA: MIT Press.
- Chomsky, N. (2004). Beyond explanatory adequacy. In A. Belletti (arg.), *The cartography of syntactic structures (vol. 3. Structures and beyond)* (104-130. or.). Oxford: Oxford University Press.
- Chomsky, N. (2008). On phases. In R. Freidin, C. P. Otero & M. L. Zubizarreta (arg.), *Foundational issues in linguistic theory: Essays in honor of Jean-Roger Vergnaud* (133-166. or.). Cambridge, MA: MIT Press.
- Citko, B. (2014). *Phase theory. An introduction. Research Surveys in Linguistics*. Cambridge: Cambridge University Press.
- De Rijk, R. P. G. (1969). Is Basque an s. o. v. language? *FLV*, 3, 319-351.
- Downing, L. (2010). An edge-based approach to the alignment of syntactic phases and prosodic phrases. N. Vincent & L. Mycock (arg.), *Transactions of the Philological Society. The prosody-syntax connection (special issue)*, 108, 352-369.
- Downing, L. (2011). The prosody of «dislocation» in selected Bantu languages. *Lingua*, 121(5), 772-786. doi: 10.1016/j.lingua.2010.11.006.
- Duguine, M. (2012). Basque nominalizations and the role of structural case in the licensing of null arguments. In U. Etxeberria, R. Etxepare & M. Uribe-Etxebarria (arg.), *Noun phrases and nominalization in Basque: syntax and semantics. Linguis-*

- tik Aktuell/Linguistics Today 187* (333-374.or.). Amsterdam-Philadelphia: John Benjamins.
- Elordieta, A. (2001). *Verb movement and constituent permutation in Basque*. Utrecht: LOT.
- Elordieta, A. (2002). On the (im)possibility of prosodic focus marking in embedded contexts in Northern Bizkaian Basque. In X. Artiagoitia, P. Goenaga & J. A. Larkarra (arg.), Erramu Boneta: *Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*. *ASJuren gehigarriak 54* (153-177. or.). Bilbo: UPV/EHU.
- Elordieta, A. (2004). Prosodiaren eta egitura konfigurazionalaren arteko eraginaz. In P. Albizu & B. Fernández (arg.), *Euskal gramatika XXI. mendearen atarian: arazo zaharrak, azterbide berriak* (39-60. or.). Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU-Arabako Foru Aldundia.
- Elordieta, A., Elordieta, G. & Hualde, J. I. (2018). Menpeko perpausetako hitz azentugabeen foku azentuaz. *FLV, 126*, 415-433.
- Elordieta, A. & Haddican, B. (2018). Truncation feeds intervention: two clause type effects in Basque. *Natural Language and Linguistic Theory, 36*(2), 403-443.
- Elordieta, G. (1998). Intonation in a pitch-accent variety of Basque. *ASJU, 32*, 511-569.
- Gussenhoven, C. (1983). *A semantic analysis of the nuclear tones of English*. Bloomington, IN: Indiana University Linguistics Club.
- Hualde, J. I. (1997). *Euskararen azentuerak*. *ASJuren gehigarriak 42*. Donostia-Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia-UPV/EHU.
- Hualde, J. I., Elordieta, G. & Elordieta, A. (1993). Focalización y prosodia en vascuence vizcaíno. *ASJU, 26*, 731-749.
- Hualde, J. I., Elordieta, G. & Elordieta, A. (1994). *The Basque dialect of Lekeitio*. *ASJuren gehigarriak 34*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Jun, S.-A. & Elordieta, G. (1997). Intonational structure of Lekeitio Basque. In A. Botinis, G. Kouroupetroglou & G. Carayannis (arg.), *Intonation: theory, models and applications. Proceedings of an ESCA workshop* (193-196. or.). Atenas: ESCA.
- Kahnemuyipour, A. (2009). *The syntax of sentential stress*. Oxford: Oxford University Press.
- Kandybowicz, J. (2009). Embracing edges: syntactic and phono-syntactic edge sensitivity in Nupe. *NLLT, 27*, 305-344.
- Kayne, R. (2000 [1999]). Prepositional complementizers as attractors. In *Parameters and universals* (282-313. or.). Oxford: Oxford University Press.
- Kayne, R. (2005). Prepositions as probes. In *Movement and silence* (85-104. or.). Oxford: Oxford University Press.
- Kratzer, A. & Selkirk, E. (2007). Phase theory and prosodic spellout: The case of verbs. *The Linguistic Review, 24*, 93-105.
- Legate, J. A. (2003). Some interface properties of the phase. *Linguistic Inquiry, 34*, 506-516.

- Ortiz de Urbina, J. (1989). *Some parameters in the grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Ortiz de Urbina, J. (1994). Verb-initial patterns in Basque and Breton. *Lingua*, 94, 125-153.
- Ortiz de Urbina, J. (1999). Focus in Basque. In G. Rebuschi & L. Tuller (arg.), *The grammar of focus* (311-334. or.). Amsterdam-Philadelphia: John Benjamins.
- Pak, M. (2008). *The postsyntactic derivation and its phonological derivations* (doktoretesia). University of Pennsylvania, Pennsylvania.
- San Martin, I. (2008). Defective domains in Basque nominalized dependants. In X. Artiagoitia & J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika jaietan: Patxi Goenagari omenez. ASJUren gehigarriak 51* (753-767. or.). Donostia: UPV/EHU.
- San Martin, I. (2012). Structural dependency and interpretation in Basque nominalized clauses. In U. Etxeberria, R. Etxepare & M. Uribe-Etxebarria (arg.), *Noun phrases and nominalization in Basque: syntax and semantics. Linguistik Aktuell/Linguistics today 187* (375-396. or.). Amsterdam-Philadelphia: John Benjamins.
- San Martin, I. & Uriagereka, J. (2002). Infinitival complementation in Basque. In X. Artiagoitia, P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.), Erramu Boneta: *Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk. ASJUren gehigarriak 54* (597-609. or.). Donostia: UPV/EHU.
- Selkirk, E. O. (1995). The prosodic structure of function words. In J. N. Beckman, L. Walsh & S. Urbanczyk (arg.), *Papers in Optimality Theory. UMOP 18* (439-469. or.). Amherst, MA: GLSA.
- Selkirk, E. O. (2000). The interaction of constraints on prosodic phrasing. In M. Horne (arg.), *Prosody: Theory and experiment* (231-261. or.). Dordrecht: Kluwer.
- Selkirk, E. O. (2011). The syntax-phonology interface. In J. Goldsmith, J. Riggle & A. Yu (arg.), *The handbook of phonological theory* (2. argitalpena) (435-484. or.). Oxford: Wiley-Blackwell.
- Svenonius, P. (2004). On the edge. In D. Adger, C. de Cat & G. Tsoulas (arg.), *Peripheries: syntactic edges and their effects* (261-287. or.). Dordrecht: Kluwer.
- Truckenbrodt, H. (1995). *Phonological phrases: their relation to syntax, focus and prominence* (doktoretesia). MIT.
- Truckenbrodt, H. (1999). On the relation between syntactic phrases and phonological phrases. *Linguistic Inquiry*, 30, 219-255.
- Truckenbrodt, H. (2005). A short report on Intonation Phrase boundaries in German. *Linguistische Berichte*, 203, 273-296.
- Truckenbrodt, H. (2007). The syntax-phonology interface. In P. de Lacy (arg.), *Cambridge handbook of phonology* (435-456. or.). Cambridge: Cambridge University Press.
- Uriagereka, J. (1999). Multiple spell-out. In S. D. Epstein & N. Hornstein (arg.), *Working minimalism* (251-282. or.). Cambridge, MA: MIT Press.
- Zabala, I. & Odriozola, J. C. (1996). On the relation between DP and TP. The structure of Basque infinitivals. *Catalan Working Papers in Linguistics*, 5(2), 231-281.

Aurkibidea / Índice

- 11 Aitzinsolasa
- 13 Prólogo
- 15 Testu-corpusen informazio morfosintaktikoaren etiketatze automatikoa
hizkuntz ezagutzan oinarrituz: zenbait arazo, hainbat erronka
ITZIAR ADURIZ, JOSE MARI ARRIOLA
- 31 Bertsolaritzaren genealogia subalternoak
LUZIA ALBERRO, K. JOSU BIJUESCA
- 47 Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten
behinbehineko emaitzak
ESTIBALIZ AMORRORTU, ANE ORTEGA, JONE GOIRIGOLZARRI
- 63 Garaziko euskararen azterketa diafasikoa
ALEXANDER ARTZELUS MUXIKA
- 81 Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten
delako* nobelan: hurbilpen genetiko bat
MIKEL AYERBE SUDUPE
- 95 Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga
GOIO BAÑALES, MIKEL GORROTXATEGI
- 113 Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko
pilota-elkarte batean
IÑIGO BEITIA
- 127 Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa
GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA, BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA
- 141 Lingüística Histórica: estado actual
LYLE RICHARD CAMPBELL
- 163 Lenguas y sociolingüística en el interior del País Vasco en el siglo XIX:
testimonios del Archivo Zavala
BRUNO CAMUS BERGARECHE, SARA GÓMEZ SEIBANE

- 177 Les verbes psychologiques du basque : typologie et diachronie
DENIS CREISSELS, CÉLINE MOUNOLE
- 195 Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren
didaktikan
LEIRE DIAZ DE GEREÑU LASAGA, ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI, LUIS MARI
LARRINGAN ARANZABAL
- 209 Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan
AMAIA ELIZALDE ESTENAGA
- 223 Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen
ARANTZAZU ELORDIETA
- 237 Sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus historikoa
eraikitzen
AINARA ESTARRONA, IZASKUN ETXEBERRIA, RICARDO ETXEPARE, MANUEL
PADILLA-MOYANO, ANDER SORALUZE
- 253 Ahozkotasanaren didaktika ikuspegi dialektikotik abiatuta
AINHOA EZEIZA, JAVIER ENCINA
- 267 Ahozko euskararen erabilera eskolan: gako zenbait irakasleen prestakuntzarako
INES M. GARCIA-AZKOAGA, OLATZ BENGOETXEA, JOSUNE ZABALA
- 283 El corónimo navarro *Salazar / Zaraitzu*: origen y desarrollo de su doble
denominación
ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE
- 295 *Fontes Linguae Vasconum*: orígenes y documentos para una Historia
del Euskara
JOAQUÍN GORROCHATAGUI
- 315 Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz
MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN
- 329 Basque among the world's languages: a typological approach
IVÁN IGARTUA
- 351 Familias vascohablantes: propuesta de definición desde la socialización
lingüística
PAULA KASARES
- 363 Formation linguistique de basque aux enseignants, pour un enseignement
bilingue à parité horaire au Pays Basque Nord
BEÑAT LASCANO
- 375 Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren ekarpena euskal poetika erruralari
ITZIAR MADINA
- 391 Erdaretarako literatur itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko
muga lausoa
ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

- 405 Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza: berrikuntza didaktikoa eta soziala?
IBON MANTEROLA
- 421 Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak
MIKEL MARTÍNEZ ARETA
- 437 Diachronical hypotheses accounting for synchronic variation: the case of the Basque particle *ote*
SERGIO MONFORTE
- 453 Jardueraren azterketa irakasleak prestatzeko bide: debatearen ikas-irakaskuntzaren adibidea
AROA MURCIANO EIZAGUIRRE, ARANTZA OZAETA ELORTZA
- 467 Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketez
MARI JOSE OLAZIREGI
- 485 Ahozko euskara *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean
ARGIA OLÇOMENDY
- 501 Euskararen postposizioak
JAVIER ORMAZABAL
- 517 Hitz-ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera-maiztasunean
LUIS PASTOR
- 533 Differential D-marking on proper names? A cross-linguistic study
IKER SALABERRI
- 547 Externalization and morphosyntactic parameters in Basque
HISAO TOKIZAKI
- 561 XIX. mendeko Debagoieneko testuez zenbait argitasun: egiletasuna eta iturriak
OXEL URIBE-ETXEBARRIA
- 579 Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak
LAURA VELA-PLO
- 595 Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian: bukaeran -(iz)amo duten leku-izenak
LUIS MARI ZALDUA

Izenburua/Título:

Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari/Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca

© Argitaratzaileak/Editores:

Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño

© Egileak/Autores:

Itziar Aduriz, Jose Mari Arriola, Luzia Alberro, K. Josu Bijuesca, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega, Jone Goirigolzarri, Alexander Artzelus Muxika, Mikel Ayerbe Sudupe, Goio Bañales, Mikel Gorrotxategi, Iñigo Beitia, Garbiñe Bereziartua Etxeberria, Beñat Muguruza Aseginolaza, Lyle Richard Campbell, Bruno Camus Bergareche, Sara Gómez Seibane, Denis Creissels, Céline Mounole, Leire Diaz de Gereñu Lasaga, Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Luis Mari Larringan Aranzabal, Amaia Elizalde Estenaga, Arantzazu Elordieta, Ainara Estarrona, Izaskun Etxeberria, Ricardo Etxepare, Manuel Padilla-Moyano, Ander Soraluze, Ainhoa Ezeiza, Javier Encina, Ines M. Garcia-Azkoaga, Olatz Bengoetxea, Josune Zabala, Roberto González de Viñaspre, Joaquín Gorrochategui, Miren Ibarluzea Santisteban, Iván Igartua, Paula Kasares, Beñat Lascano, Itziar Madina, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Ibon Manterola, Mikel Martínez Areta, Sergio Monforte, Aroa Murciano Eizaguirre, Arantza Ozaeta Elortza, Mari Jose Olaziregi, Argia Olçomendy, Javier Ormazabal, Luis Pastor, Iker Salaberri, Hisao Tokizaki, Oxel Uribe-Etxebarria, Laura Vela-Plo, Luis Mari Zaldua

© Argitaratzailea/Edita:

Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra

Kultura eta Kirol Departamentua/Departamento de Cultura y Deporte

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia/Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

Lanak adituek berrikusi dituzte, itsu bikoitzeko sistemaren bidez/Los trabajos han sido revisados por pares doble ciego.

Diseinua eta maketazioa/Diseño y maquetación:

Kö estudio

Imprimaketa/Impresión:

Linegrafic

ISBN: 978-84-235-3561-3

LG/DL: NA 1438-2020

Sustapena eta banaketa/Promoción y distribución:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa/Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21

31002 Iruña/Pamplona

Tel.: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Fontes Linguae Vasconum 50 urte.

2019an 50 urte egin zituen Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundeak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta* euskal hizkuntzalaritzako aldizkariak.

Horren gorazarre, liburu honek gaur egungo euskal hizkuntzalaritza- eta literatura-ikerketan zertan den erakutsi nahi du. Eskarmentu handiko ikertzaileek eta belaunaldi berriek bat egin dute argitalpen honetan, besteak beste, dialektologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hizkuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura, onomastika eta soziolinguistika hizpide dituztela.

La revista de lingüística vasca *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta*, publicada por la Institución Príncipe de Viana del Gobierno de Navarra, cumplió 50 años en 2019.

En homenaje de la efemérides, este libro pretende dar cuenta del estado actual de la investigación en lingüística y literatura vascas. Investigadores de gran trayectoria y nuevas generaciones se reúnen en esta publicación para tratar, entre otros temas, sobre dialectología, didáctica de la lengua, filología, gramática teórica, tipología lingüística, lingüística histórica, traducción, literatura, onomástica y sociolingüística.

ISBN: 978-84-235-3561-3



9 788423 535613